



Galdera

1. Jesusek gaur egun ere dei egiten digu. Niri deitzen dit. Entzuten dut dei hori? Berak ni itauntzen utziko diot?




Bukaerako otoitza

Begietara begiratuz, gure izenez deitzen diguzu.
 Zu ezagutu eta jarraitzera gonbidatzen gaituzu.
 Jainkoaren Erresumaren eraikuntzan langile izatea eskainiz,
 egoera eta jatorri ezberdinetako edonor onartzen direlarik bertan.
 Zure eskua erakutsi eta eskaintzen diguzu
 guk gauza bera egin dezagun.
 Belarriak irekiko ditut zer esan nahi didazun entzuteko.
 Hemen naukazu.
 Amen.

GURE AITA





Hasierako otoitza

Jaunaren hitza entzun ta gurea egiteko prestatuko gara isiltasun une bat eginez eta Espiritu Santuari dei eginez.

Espiritu Santua, zatoz!

Ireki gure bihotza

Jaunak Idatzietan eskaintzen digun Hitza entzun dezagun.

Espiritu Santua, zatoz!

Emaguzu ulermena eta iraunkortasuna

Hitza ulertzeko eta praktikara eramateko.



Sarrera

Jesusek “jarrai niri” (Mk 1, 17) esaten digunean, gure erosotasunetik irtetera mugitzen gaitu, aurreiritzi eta gustukoaren ditugunak albora utzirik. Ez da erabaki erraza. Jainkoarengandik eta besteengandik bereizten gaituzten mugak zeharkatzeko deia egiten zaigulako. Gure pribilegio eta harrotasunak albora utziz, Pablok Filipearrei (Flp 2,3) egindako aholkua jarraituzera eramaten digu: “Ez egin deus ere norgehiagokeriak edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobek direla pentsatuz,” nondik datozen axola gabe.



Jn 1, 45-51: Etorri eta ikusi

Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion:

–Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zuten hura aurkitu diagu: Jesus, Joseren semea, Nazaretekoa.

Natanaelek esan zion:

–Ezer onik atera ote daiteke Nazaretetik?

Felipek erantzun zion:

–Etorri eta ikusi.

Ikusi zuen Jesusek Natanael zetorkiola, eta esan zuen:

–Hona benetako israeldar bat, faltsukeriarik gabea.

Natanaelek galdetu zion:

–Nondik ezagutzen nauzu?

Jesusek erantzun:

–Felipek deitu aurretik ikusi zintudan pikupean.

Natanaelek esan zion:

–Maisu, zu Jainkoaren Semea zara, zu Israelgo erregea zara.

Jesusek ihardetsi zion:

–Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu!

Eta gaineratu zuen:

–Bene-benetan diotsuet: Zerua irekia ikusiko duzue, eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gainean.



Evangelii Gaudium

3. Kristau guztiei dei egiten diet, edozein toki eta egoeratan daudela ere, berri dezaten beraien Jesu Kristorekin aurkitzea edo, erabaki dezatela gutxienez Berari bila ditzan uztea. (...) Galdutakoan Berarengana itzultzeak hainbeste on egiten digu! Behin eta berriz diot: Jainkoa ez da barkatzeaz sekula nekatzen, gu gara bere errukira jotzeaz nekatzen garenak. «Zazpi milatan zazpi aldiz» (Mt 18,22) (...) Burua altza eta berriz hasten laguntzen (...) Ez dezala ezerk izan aurrera bultzatzen gaituen Bere biziak baino indar gehiago.



Gogoeta

Jesusek Erreinuaaren predikazioa hasten du eta bere garaiko gizon-emakumeei salbazioa eskaintzen die. Lehenik eta behin, Erreinuaaren hedapenean eta bere mezu salbatzailean bere laguntzaile gertukoenak izango direnak aukeratzen ditu. (Mt. 10,1-4; Lk 6,12-16; Mk 3, 13-19)

Apostoluak dira, gertuko lagunak, oinaze eta aintza uneak partekatuko dituztenak eta bere misioarekin jarraituko dutenak garai guztietako gizon eta emakumeen artean.

Pertsona xumeak dira. Jesus haiek dauden tokitik pasatzen da eta dei egiten die eta atzetik joateko gonbidatzen ditu: “Zatozte nirekin eta giza-arrantzale egingo zaituztet”. Eta erantzuna berdina da ebanjelio ezberdinetan: «Eta dena utzita, jarraitu egin zioten». «Berehala utzi zituzten txalupa eta aita, eta haren atzetik joan ziren». (Mk 1,16-20; Lk 5, 1-11; Mt 4, 18-22)

